



Kaixo lagun,

2016-2018 Gurasolagunen matrikulazio kanpaina abian jarriko dugu ikasturte honetan ere. Bide batez, ikastetxean informazioa zabaltzeko laguntza eskatu nahi dizugu.

Zer da Guraso-laguna?

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko egitasmoa da. Ikastetxeetan haurrak eskola orduz kanpoko ekintzetan daudenean, eskola orduetan, parkean edota eskolako patioan dauden bitartean gurasoen arteko guraso lagun taldeak osatzea da helburua. Lehen Hezkuntza eta bereziki Haur Hezkuntzan ari diren haurren gurasoentzako eskainitako egitasmoa da, izan ere, haurrentzako oso garrantzitsua da gurasoek euskaraz ari direla eta saiakera egiten dutela ikustea.

Nola funtzionatzen du?

- o GURASOLAGUNAK TALDEAK:

Talde txikiak osatzen dira, bi, hiru edo lau laguneko taldeak.

Taldeak gutxienez astean behin ordubetez elkartzen dira.

Taldeek lekua erabakitzeke askatasun osoa dute, baina xede taldea eskolaren inguruan izanik, eskolako jolastokia, auzoko parkea, eskola eraikinean...izaten da normalean. Kasu batzuetan hurrekin batera (jolasean ari diren bitartean) eta beste batzuetan haurrik gabe (adibidez eskolaz kanpoko ekintzetan dauden bitartean).

Nola parte hartu?

Gurasolagunean bi modutara parte har daiteke, euskara praktikatzuz eta euskara praktikatzen lagunduz.

Eta praktikatu nahi dutenen kasuan 25 euro ordaindu behar da ikasturte osoa.

Zuen ikastetxean egitasmoa martxan jarri nahi baduzue gurekin harremanetan jar zaitezke. gurasolaguna@bagera.eus edo 943005074 telefonora deituz.

Informazioa zabaltzen lagunduko duzuelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

